

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko dugun bide nagusia internet izango da. Hau da, webgune bat sortuko dugu gure produktua saltzeko. Gaur egun, jende gehienak internet erabiltzen du egunerokotasunean, beraz, uste dugu, gure komunikazio-kanal nagusi honen bidez jende multzo handiagora helduko garela. Beste alde batetik, sare sozialak erabiliko ditugu gure produktua zabaltzeko, hala nola, facebook, twitter, instagram. Komertzialen bidez ere salduko dugu gure produktua.

Bezeroak gure produktuarekin arazoren bat izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko hainbat baliabide izango dituzte. Alde batetik, gure webgunean dagoen telefono zenbakiari deituz gero, bezeroen kezka entzun eta konpontzen saiatuko gara. Bestalde, webgunean sartuz gero, gurekin komunikatzeko atal bat egongo da non gurekin harremanetan jartzeko aukera izango duzuen. Eta lehen esan dugun bezala, sare sozialetatik ere galderak erantzungo ditugu. Honetaz aparte, beste atal bat egongo da, FaQ deiturikoa, non galdera ohikoenak agertuko dira, bakoitza bere erantzunekin.

